

Eskuina eta ezkerria

Zeruko Argia, 682. zk., 1976-04-04: 7.

Gure erriko pelotariak, ezker-eskuinarekin jokatzeko gaitasun bila ibiltzen dira.

Onurakorragea bait da.

Hala, eskuma-ezkerti edo ezker-eskumati izatera iritxi eta bi eskuetara jokatzeko kontrarioaren aurrean eskuin edo ezker utsarekin jokatzeko jartzeak arrokeria edo inozokeria salatzen du.

Baina eman dezagun orain, norbaitek kasketaldi bat duela.

Ondorea bere gain badoa, hontarako askatasuna badu, noski; baina erri osoaren zoria berarekin daraman jokaldi batean bada, ezin dugu erri osoa esku bat lotuta bizia jokatzeko jarri.

Pelotan bezala, politikan ere.

Noski, gure erriak osatzen duen ekipoa ez dugu tongo egingo duen ezkerreko nahiz eskuineko inor nahi; gure aurka jokatzeko, nahikoak ditugu aurrez-aurre ditugun arerioak.

Eta, badakit: mozorro-sorgin asko da gero egitazkoa gertatzen dena.

Bada zer kontuan izan, bai. Baina, xinplifikatzeak lana errazten diolako edo honetarako grina batek bultzatzen diolako, sorgin-ehizean jartzen denak berak sortuko ditu apika irudimeneko sorgin kaltegarrienak.

Eragin hau nabarmen-ezaguna da psikologi eta soziologi alorretan non nahi.

Gure erriko sorginak, gainera, elkar-urruti dauden gauzei ere deitura emateko aldakoiak ditugu: baratxuri mota bat bereizteko (sorgin-baratxuria), pinpilinpauxa mota bat (sorgin-bitxia) izentatzerainokoa.

Aukera-tarte ikaragarria!

Honetxegatik uste dut nik, sorginkeria beraren eragina duen ehiza beldurri batean asten dena, perlesiak jota bezala geratzeko arrixkua duela.